FESTIVAL INTERNACIONAL DE DANZA
2015 NAZIOARTEKO DANTZA JAIALDIA

16 DANTZALDIA La FuNdicIOn

# DANTZ ALDIA

La FuNdicIOn

EUSKALDUNA JAUREGIA BILBAO
MUSEO GUGGENHEIM BILBAO
AZKUNA ZENTROA
BIZKAIA ARETOA
LA FUNDICIÓN
SALA REKALDE
SALA BBK

Ideia eta koordinazioa
Idea y coordinación
**Laura Etxebarria**
**Luque Tagua**

Prentsa eta zabalkundea
Prensa y difusión
**Marian Etxebarria**

Zuzendari teknikoa
Dirección técnica
**Tarima**

Euskaratzea
Traducción al euskera
**Agus Pérez**

Administrazioa
Administración
**Bikoa**

Diseinu grafikoa
Diseño gráfico
**Ytantos**

## SARREREN SALMENTA:

**Euskalduna Jauregia**, **Azkuna Zentroa, Sala BBK** eta **La FuNdicIOn**:
leihatiletan, Kutxabank puntuetan eta Infopuntua Azkuna Zentroan.

**Guggenheim Bilbao Museoa**:
leihatiletan edo www.guggenheim-bilbao.es webgunean

**Sala Rekalde** eta **Bizkaia Aretoa:**
sarrera dohain bete arte.

## VENTA DE ENTRADAS:

**Euskalduna Jauregia**, **Azkuna Zentroa, Sala BBK** y **La FuNdicIOn**:
en taquillas, puntos de venta Kutxabank e Infopuntua Azkuna Zentroa.

**Museo Guggenheim Bilbao**:
en taquillas o en www.guggenheim-bilbao.es

**Sala Rekalde** y **Bizkaia Aretoa:**
entrada libre hasta completar aforo.

16

DANTZALDIA

La FuNdicIOn

# DANTZALDIA 2015

Ostera ere ari gara biziraupena eta jarraipena ospatzen hamaseigarren edizio honetan. Hiriaz gozatzen eta konpartitzen jarraitzen dugu, jaialdiarekin kolaboratzen duten espazio eta erakundeekin batera.

**Dimo Kirilov** eta **Tamako Akiyama** –Nacho Duato / Compañía Nacional de Danzako kide direnak– irailaren 23ko inaugurazio ekitaldian egongo dira *Aimless* izeneko piezarekin. Urriaren 15ean, *Bailarina de fondo en concierto*-ra eramango gaitu egutegiak: **Tania Arias Winogradowen** pieza hau "lagun askorekin" sortu zen, eta konplizitate batzuek markatzen dute konposizioen partitura. **Ayelen Parolinek** –Bruselan finkatutako argentinar koreografoak– ekite metodikoz behatzen du giza izaera, eta aroei zein harremanei buruzko erretratu obsesiboa eskaintzen digu, errepikapenaren eta metaketaren bidez. **Damián Muñoz** eta **Jordi Cortés** artistek osatutako duoa beti izan zaigu hurkoa, eta aukera honetan lau kontinenteetatik ibili duten pieza ekarriko digute –*Ölelés*–, urteak igaro ostean jaialdira etorriko den interpretazio-duoan.

**Nuevo Flamenco** zikloan eta piezekin lekua egingo diegu sortzaileek egindako irakurketa berriei, flamenko hutsetik abiatuta. Berrinterpretatze pertsonalak eskainiko dizkigute, jolastuz, ikertuz, esperimentatuz, **Belén Mayak** aipatzen dituen "leku ezezagunetan eta arrisku-denboretan" murgilduta. Izan ere, abenduaren 5ean **Belén Maya** ikusiko dugu **Niño de Elche**-rekin batera *Ya (ensayos)* izeneko piezan, eta lehenago **Daniel Hernández** (urriaren 10 eta 11n) gurekin egongo da dantza-solo batean –*Persona*–, espainiar dantzaren eta bideo-artearen arrastoak dituena. Azaroaren 21 eta 22an **Juan Carlos Léridak** dantzaren grafia bat aurkeztuko du bere *Bailografía*-n, gorputz batekin eta gorputzean egindako trazu koreografikoan…

Guztiz desberdina den beste lerro batean, **Lisbeth Gruwezek** gorputzaren eta ahotsaren arteko duelu bikain bat planteatuko du, bere lanarekin erakutsiz diskurtso bat oso arma ahalmentsua izan daitekeela.

Jaialdia parte-hartze pieza batekin amaituko da, hain zuzen ere **Sharon Fridmanen** *Free fall / Caída libre* obra ezagunarekin. Bertan ekipoak fisikotasun bikaineko lan bat egingo du eta konpainiak eszenatokia konpartituko du aurretiaz emango den tailer bateko partaideekin.

Eta heldu da **Tailerrak** aipatzeko momentua, berriz ere egingo direlako **Dantzabizekin** (Bizkaiko Dantza Etxea) kolaboratuz eta erakunde berak antolatutako Ibilbide Pedagogikoetarako. **Belén Mayaren** tailerra abenduaren 3, 4 eta 6an izango da eta **Sharon Fridmanena** abenduaren 10, 11 eta 12an.

Betiko moduan, dantzarekin, gorputzarekin eta mugimendu artistikoekin erlazionaturiko zineaz eta solasaldiez gozatu ahal izango dugu: Eneko Lorentek (azaroak 19) minimalismoaz eta horrek dantzaren alorrean daukan eraginaz hitz egingo digu, eta Loránd Jánosek (abenduak 10) "dantza-zinea vs. bideo-dantza"-z arituko da. Profesionalen topaketek eta bitartekaritza-lanak lagunduko digute kontaktuen zirkulua eta denbora konpartituak osatzen.

Zuen zain daude gune guztiak, sortzaile denak eta jaialdiaren ekipoa. Begirada "bakun" eta "pluralak" izango dira, eta zuen begiraden enkontrura joango dira ostera ere.

De nuevo celebrando la supervivencia y la continuidad en esta 16º edición en la que seguimos compartiendo y disfrutando la ciudad a través de los espacios y organismos que colaboran con el festival.

**Dimo Kirilov** y **Tamako Akiyama**, de la Compañía Nacional de Danza-Nacho Duato, nos acompañan en la inauguración del día 23 de septiembre con la pieza *Aimless*. El calendario nos lleva el día 15 de octubre a *Bailarina de fondo en concierto*, inquietante pieza de **Tania Arias Winogradow** creada "con muchos amigos" y complicidades que van marcando la partitura de temas. **Ayelen Parolin,** coreógrafa argentina con residencia en Bruselas, que observa la naturaleza humana con insistencia metódica, nos ofrece un obsesivo retrato de los tiempos y las relaciones a través de la repetición y la acumulación. **Damián Muñoz** y **Jordi Cortés**, un dúo de artistas que nos han sido siempre muy próximos, nos acercan una pieza que han movido por los cuatro continentes –*Ölelés*–, y que ahora hacemos recalar en el festival con este duelo interpretativo retomado después de años.

Con las piezas/el ciclo del **Nuevo Flamenco** damos espacio a esas nuevas lecturas de los creadores que, desde el flamenco puro, nos ofrecen reinterpretaciones personales, jugando, investigando, experimentando, al asomarse a "esos lugares inéditos y tiempos de riesgo" que menciona **Belén Maya,** a quien veremos con **el Niño de Elche** en *Ya (ensayos)* el 5 de diciembre, tras haber tenido ya con nosotros a **Daniel Hernández** (10 y 11 de octubre) en un solo de danza –*Persona*– con tintes de danza española y videoarte. Y los días 21 y 22 de noviembre con **Juan Carlos Lérida**, que en su *Bailografía* hace una grafía del baile con el trazo coreográfico "de un cuerpo y en el cuerpo"…

En otra línea totalmente distinta **Lisbeth Gruwez** plantea un soberbio duelo cuerpo-voz en una pieza que muestra cómo un discurso puede ser un arma muy poderosa.

El festival termina con una pieza de participación: la conocida pieza de **Sharon Fridman** *Free fall / Caída libre*, donde el equipo realiza un trabajo de una fisicalidad soberbia y en la que la compañía compartirá el espacio escénico con los integrantes del taller que se habrá impartido previamente.

Aquí es el momento de mencionar los **Talleres,** que de nuevo se realizan en colaboración y para los Itinerarios Pedagógicos que organiza **Dantzabiz** (Bizkaiko Dantza Etxea). Con **Belén Maya** los días 3, 4 y 6 de diciembre y con Sharon Fridman los días 10, 11, 12 de diciembre.

Como siempre, podremos disfrutar de cine y conversaciones relacionadas con la danza, el cuerpo y los movimientos artísticos: Eneko Lorente (19 nov) nos hablará del minimalismo y su influencia en el campo de la danza y Loránd János (10 dic) sobre "cine de danza versus videodanza". Los encuentros profesionales y el trabajo de mediación ayudarán a completar el círculo de contacto y tiempos compartidos.

Todos los espacios, todos los creadores y el equipo del festival os esperamos. Miradas "singulares" y "plurales", de nuevo al encuentro de las vuestras.

# Egitaraua
# Programa

**23s** Sala Rekalde, 20:00 h.

**INAUGURACIÓN FESTIVAL DANTZALDIA**
**DIMO KIRILOV & TAMAKO AKIYAMA**
AIMLESS, Madrid

**10o** La Fundición, 20:00 h.
**11o** La Fundición, 19:00 h.

**SPIN OFF Dance**
PERSONA, Valencia

**15o** Azkuna Zentroa, 20:00 h.

**TANIA ARIAS**
BAILARINA DE FONDO
EN CONCIERTO, Madrid

**6n** Sala BBK, 20:00 h.

**AYELEN PAROLIN**
HÉRÉCTIQUES, Bruselas

**15n** Palacio Euskalduna, 20:00 h.

**DAMIAN MUÑOZ-JORDI CORTÉS**
OLËLÉS, Euskadi-Catalunya

**21n** La Fundición, 20:00 h.
**22n** La Fundición, 19:00 h.

**JUAN CARLOS LÉRIDA**
BAILOGRAFÍA, Barcelona

**5d** Sala BBK, 20:00 h.

**BELEN MAYA**
YA! (Ensayos), Sevilla

**12d** Museo Guggenheim Bilbao, 19:00 h.

**LISBETH GRUWEZ-VOETVOLK**
IT´S GOING TO GET WORSE
AND WORSE AND WORSE,
MY FRIEND, Bélgica

**13d** Palacio Euskalduna, 20:00 h.

**SHARON FRIDMAN**
CAÍDA LIBRE (Free fall), Madrid



# 23
## IRAILA
## SEPTIEMBRE

# INAUGURACIÓN
# INAUGURAZIOA

**23 iraila** septiembre
**SALA REKALDE 20:00h.**

Con la colaboración de

rekalde

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

-rekin lankidetzan

# Tamako Akiyama - Dimo Kirilov

**Madrid**

## AIMLESS



Koreografia Coreografía:
**Dimo Kirilov Milev**

Musika Música:
**Marc Ribot**

Dantzariak Bailarines:
**Tamako Akiyama, Dimo Kirilov Milev**

*Aimless* piezak ez du hitz egiten nora goazen une horietaz, norekin goazen une horietaz baizik...

*Aimless* es una pieza sobre aquellos momentos en los que no importa a dónde uno va, sino con quién va...

**10-11 urria octubre** **LA FUNDICIÓN**

# Spin off danza

## Valencia

## PERSONA

Spin Off Danza Daniel Hernández koreografo eta dantzariak bere autore-obrak aurkezteko eta sustatzeko erabiltzen duen seilua da. Baina, gainera, Spin Off Danza konpainien edota artisten elkargune iheskor bezala ari da perfilatzen, *spin off* estilo betean. Esamolde anglosaxoi hori erabiltzen da erronka komun bati ekiteko talentuen arteko elkartze puntuala izendatzeko. Konpainia honen bidez, Daniel Hernándezek Espacio Latente eta Erre que Erre Danza-rekin kolaboratzen du eta bizia eman dio bere lehen bakarkako proiektuari: *Persona*.

*Persona* izeneko dantza garaikide soloak espainiar dantzaren trazak ere badauzka eta hainbat arte-adierazpen teknika konbinatzen ditu, hala nola bideo-artea edota eszenatokia bera instalazio moduan. Obrak gizaki guztiek elkarrekin duten lekua zirriborratzen du, zeren eta, gizaki izate soilagatik, gure nahien zama existentziala jasaten baitugu, kritikaren lastapean eta, askotan, gu geu garen borrerorik okerrenaren uztarripean.

*Persona* barne bidaia bat da, artistaren gorputzean zehar. Periplo honek *La huida* (Ihesa), *La espiral* (Espirala) eta *El abismo* (Amildegia) bezalako eszenetan kokatuko gaitu. Hirurek osatzen dute obra hau, Unamuno, Friedrich Nietzsche eta Milan Kunderaren jenialtasunaz zipriztinduta dagoena.

Ikuskizun osoak egiten die erreferentzia aurrerakuntzari, aldaketari, nork bere burua gainditzeari...

Spin Off Danza es el sello con el que el coreógrafo y bailarín, Daniel Hernández promueve y presenta sus obras de autor, pero además, Spin Off Danza se perfila también como punto de encuentro fugaz entre compañías y/o artistas al más puro estilo *spin off*, término anglosajón que se emplea para designar la unión puntual de talentos para abordar un reto conjunto. A través de esta compañía, Daniel Hernández colabora con Espacio Latente y Erre que Erre Danza y da vida a su primer proyecto en solitario: *Persona*.

*Persona* es un solo de danza contemporánea con tintes de danza española que combina diferentes técnicas de expresión artística, como el videoarte o el propio escenario a modo de instalación. La obra esboza un lugar común a todos los seres humanos, que, por el simple hecho de serlo, ya soportamos el peso existencial de nuestras aspiraciones bajo el lastre de la crítica y, en muchas ocasiones, bajo el yugo de nuestro peor verdugo: nosotros mismos.

*Persona* es un viaje interior a través del cuerpo del artista. Un periplo que nos situará en *La huida*, *La espiral* y *El abismo*, las tres escenas que componen esta obra salpicada de la genialidad de Unamuno, Friedrich Nietzsche y Milan Kundera.

Todo el espectáculo hace una referencia al progreso, al cambio, a la superación...



Zuzendaritza, sorkuntza eta interpretazioa
Dirección, creación e interpretación:
**Daniel Hernández**

Laguntza artistiko eta koreografikoa
Asistencia artística y coreográfica:
**María Arques, Sara Cano**

Musika Música:
**Luis Guevara (*Huida lapsus*)**
**Erik Rydvall (*Espiral*)**
**Juan A. Gómez (*Abismo*)**

Ahotsak Voces:
**Manuel de la Curra, Rocío Soto**

**20:00 h. (10) / 19:00 h. (11)**



Hitzak Letras:
**Daniel Hernández**

Musikaren produkzio ostekoa
Post-producción musical:
**Luis Mendes**

Bideo-artea Videoarte:
**Gastón Gabriel**

Fotografia Fotografía:
**Gastón Gabriel,**
**Germán Antón**

Espazio-kontzeptua eta
jantzien diseinua
Concepto espacial y
diseño de vestuario:
**Mónica Teijeiro**

Argiztapena Iluminación:
**David Rosell**

Jantziak Vestuario:
**Emilio Morales,**
**Irene da Costa, Elena de Paz**

Oinetakoak Calzado:
**Begoña Cervera**

Grafismoa, komunikazioa
eta prentsa
Grafismo, comunicación
y prensa:
**Raúl Armero**

Testuen berrikusketa
Revisión de textos:
**Elena de Paz**

*Persona* diseinatzea
Diseño *Persona*:
**Yes I do concept**
**(Enrique Núñez)**

Ikuskizunaren ekoizlea
Espectáculo producido por:
**Spin Off Danza**

Honako hauen
kolaborazioarekin
En colaboración con:
**Emilio Morales,**
**Begoña Cervera,**
**Conservatorio Profesional**
**de Danza de Novelda,**
**CCE L'escorxador**

Honako hauen babesarekin
Con el apoyo de:
**Festival Abril en Danza y**
**de la compañía Otra Danza**

**15** urria octubre

**AZKUNA ZENTROA**

# Tania Arias Winogradow

**Madrid**

## BAILARINA DE FONDO EN CONCIERTO



Ideia Idea:
**Tania Arias Winogradow**

Honako hauekin elkarrizketan
En diálogo con:
**Mónica Valenciano, Mauricio González, Juan Loriente, Sindo Puche, Carlos Marquerie, Sonia Guisado…**

Interpretea: Intérprete:
**Tania Arias Winogradow**

Laguntza: Acompañamiento:
**Cecilia Molano, Arantxa Martínez, Jaime Conde-Salazar**

Argiztapena Iluminación:
**Carlos Marquerie**

Argazkiak Fotografías:
**Susana Paiva, Anxo Montero**

Bideoa Vídeo:
**Hugo Barbosa, P. Gallo, Marta Blanco**

**20:00 h.**

Con la colaboración de Azkuna Zentroa AlhóndigaBilbao -rekin lankidetzan



Bailarina de fondo en concierto etengabeko bilakaeran dabilen proiektua da. Denborak aurrera egin ahala, kolaboratzaile berriekin izandako solasaldiak gehitu egiten zaizkio. Horrek kontzertura gehitzen diren gai berriak sortzen ditu. 2015eko maiatza

Bailarina de fondo en concierto haizearen kontrako diatriba da, non iraupen-dantzari batek konposizio bat bestearen atzetik dantzatzen duen, kontzertu eran. Bere kolaboratzaileekin duen dialogo bakoitzak atea irekitzen dio hainbat mugimendu-kilometrotan dantzaturiko konposizio bati. Helmuga ez dago ezarrita, eta hauxe da dakigun gauza bakarra: hasierako mugimendutik dantzatzen duenaren bihotzak lasterketa bateko erritmoan lan egingo duela, orain dela mila urte sekretuz beteta korrika zebiltzan mezularien gogo berberarekin.

«Eta hemen dator Hockney-ren arrebaren zerbait gehiago, berak uste du jaungoikoa airea dela, gauzen arteko tartea, zeren eta, egiatan, tarte ikusezin hori berori da beti pintatzen saiatzen ari direna, margolan batek bere izaera lortzen baitu gauzak elkarrekin lotuta mantentzeko moduaren arabera, edota elkarrekin lotuta ez lortzeko moduaren arabera. Era horretan jolasten da gurekin espazioa, denbora guztian, beraz, otoi egiten diogu espazioari.

Bururatu zait gai “pozoitsu” bat hartu genezakeela, ayahuaska titare bat agian, edo bestela erreakzio ez bereziki haluzinagarria sortuko lukeen zerbait, lasaigarri bat beharbada, ez dakit, buelta bat emango diogu, eta manta gris horietako batzuetan bildu, izerditzeko dantzatzean… eldarnioraino…, ikusiko dugu.»

«Ez dakit, baina, halako batean, Pradillon aurreko egunean izandako proba ikusi, horren aurreko anabasa eta guzti, eta dena datorkit bat pertsonaia horrengan, masek hain gutxi maite duten horrengan, hain ahalmentsua dena eta hain bakarrik dagoena (ez da inongo bandokoa).

Beno, kontua da gau honetan, ederto lo egin dudan arren, irudi bat hasi zaidala itzulinguruka, beste barik, loarinean nengoela. Eta uste dut zehaztu egin dela paseoaren ostean.»

(Tania Arias Winogradow-ek izandako solasaldietako zatiak)

Bailarina de fondo en concierto es un proyecto en continua evolución. Con el paso del tiempo se van sumando diálogos con nuevos colaboradores. Esto da lugar a nuevos temas que se van añadiendo al concierto. Mayo 2015

Bailarina de fondo en concierto es la diatriba contra el viento de una bailarina de fondo que baila un tema detrás de otro en concierto. Cada diálogo con sus colaboradores da paso a un tema bailado en varios kilómetros de movimiento. La meta no está marcada, sólo sabemos que desde el primer movimiento el corazón de quien baila trabajará al ritmo de una carrera con el mismo empeño de los mensajeros que hace mil años corrían llenos de secretos.

«Y aquí llega algo más de la hermana de Hockney, ella cree que dios es el aire, el espacio entre las cosas, porque en realidad es el espacio invisible el que siempre están intentando pintar, pues un cuadro se convierte en lo que es de acuerdo a cómo mantiene unidas las cosas, o a cómo no consigue mantenerlas unidas, así es como el espacio juega con nosotros, todo el tiempo, así que rezamos al espacio.

Se me ocurría que podíamos tomar alguna sustancia “venenosa”, como un dedal de ayahuasca, o un dedal de algo que produzca alguna reacción no necesariamente alucinógena, quizá relajante, no sé, le damos una vuelta, y ponerse con mantas de las grises envueltos para sudar al bailar… hasta el delirio…, vamos a ver.»

«No sé, pero de repente, veo que la prueba del otro día en Pradillo e incluso la maraña anterior, todo me casa en ese personaje, poco querido por las masas, tan poderoso y tan solo (no pertenece a ningún bando).

Bueno, el caso es que esta noche, aunque he dormido muy bien, una imagen ha comenzado a rondarme, así, en el duermevela. Y tras el paseo creo que se ha concretado.»

(Fragmentos de los diálogos mantenidos por Tania Arias Winogradow)



# Ayelen Parolin

**Bruselas**

## HÉRÉCTIQUES

Mugimendu baten errepikapen infinituak eta bere garapen progresiboak keinuaren muineraino eramaten gaituenean, interpreteek bukaeraraino bereganatzen dute muturreko kontzentrazio fisiko eta mentala, eta keinu-lengoaia geometriko konplexua garatzen dute, kanon eta unisonoaren artean balantzaka dabilen *crescendo* batean. Abiapuntuan pianista ikaragarri bat dago: duoari lagundu, baina markatu ere egiten dio.

Dantzaren herejea den Ayelen Parolinek emozio-bide bat bilatzen du hemen, osatze leherkorraren ifrentzuan: adierazpenen urritasunean, paturik ezean, nahita izandako hiztegiaren murrizketan eta energien jaurtiketa paradoxikoan.

Ayelen Parolinek erritual garaikide moduko batera gonbidatzen gaitu, xaman-bidaia batera gure aroaren bihotzeraino, oraingo kodeak baliatuz iraganaren eta orainaren arteko bizigarritasuna auzitan jartzen duen ibilbidea trazatzeko. Obra hau gradualki garatzen eta eraldatzen den *leit motiv* baten errepikapen eta metatze etengabean oinarritzen da, eta horrela ehuntzen du trantzekoaren antza duen amaraun tematia. Hirukote obsesibo eta mekaniko honek gure bizitza modernoaren efizientzia eta errentagarritasun inperatiboetara birbidaltzen gaitu. Koreografoaren nahia da musikaren tratamenduan bat egiten duen mugimenduaren eraikitze matematiko bati ekitea eta, aldi berean, formaren gaineko artisau-lana egitea. Izan ere, egitura konplexu bat sortzen du, bertako geruzak infinituraino gainjarriz eta sakabanatuz.

Cuando la repetición infinita de un movimiento y su desarrollo progresivo nos lleva a un viaje hacia el núcleo del gesto, los intérpretes asumen hasta el final una concentración física y mental extrema, desarrollando una gestualidad geométrica compleja, en un crescendo que oscila entre el canon y el unísono. Una pianista formidable en el punto de partida: acompaña, pero también marca, el dúo.

Ayelen Parolin, hereje de la danza, busca aquí una vía de emoción en el reverso de la sanación explosiva: en la economía expresiva, la ausencia de pathos, la reducción voluntaria de vocabulario y el lanzamiento paradójico de las energías.

Ayelen Parolin nos invita a una forma de ritual contemporáneo, un viaje chamánico al corazón de nuestra época, sirviéndose de códigos actuales para trazar un recorrido que cuestiona la viabilidad entre pasado y presente. La obra se basa en la repetición y la acumulación incesante de un leit motiv que se desarrolla y se modifica gradualmente, tejiendo así una telaraña obstinada que se asemeja a la del trance. Este trío obsesivo y mecánico nos reenvía a los imperativos de eficiencia y rentabilidad de nuestra vida moderna. La coreógrafa intenta abordar no sólo una construcción matemática del movimiento en concordancia con el tratamiento de la música, sino también un trabajo artesanal de la forma, creando una compleja estructura en capas que se yuxtaponen y se disgregan hasta el infinito.



**20:00 h.**

Con la colaboración de bbk -rekin lankidetzan

Kontzeptu eta koreografia
Concepto y coreografía:
**Ayelen Parolin**

Interpretazioa Interpretación:
**Gilles Fumba,**
**Marc Iglesias**

Musika-konposizioa
eta zuzeneko musika
Composición musical
y música en directo:
**Lea**

Dramaturgia:
**Olivier Hespel**

Argiztapen diseinua
Diseño de iluminación:
**Colin Legras**

Argi-teknikaria
Técnico de luces:
**Claude Taymans**

Jantziak Vestuario:
**Stéphanie Croibien**

Ekoizpena Producción:
**RUDA asbl**

Ekoizpen kideak Co-productores:
**Charleroi Danses, Les Brigittines,**
**Théatre Marni**

Honako hauen babesarekin
Con el apoyo de:
**Fédération Wallonie - Bruxelles-Service**
**de la danse, Kunstenwerkplaats**
**Pianofabriek, La Briqueterie, WBI,**
**SACD, WBT/D**

Kolaboratzailea
Con la colaboración de:
**Grand Studio**

Erresidentzia proiektuan zehar Residencia
durante el proyecto:
**Passarelles en Les Brigittines,**
**La Briqueterie.**

# Jordi Cortés - Damián Muñoz

**Euskadi-Catalunya**

## ÖLELÉS

*Alta Realitat-ek aurkeztua.*

*Sandor Márai-ren A gyertyák csonkig égnek (Azken enkontrua) eleberrian inspiratua.*

*2004an sortua, 2014an berrartua eta Mercat de les Flors-en estreinatua, 2015ean.*

*Sariak: Ciutat de Barcelona eta Mejor Espectáculo de Danza 2004.*

Clara van Goolen zuzendaritzapean 2011n egin zuten zinemarako moldaketak ere sari asko jaso zituen, eta haien artean honako hauek daude: Laburmetraiarik Onena Sitgeseko Noves Visions atalean 2011an (Kataluniako nazioarteko fantasia-zine jaialdia), Arte-laburmetraiarik Onena Gironako zinema jaialdian 2012an, eta finalista Laburmetraiarik Onena sarian Acadèmia del Cinema Català-k antolatutako Gaudí sarien V. edizioan.

Pieza honek aspaldiko lagun biren arteko berraurkitzea erakusten digu, berrogei urtez elkarrengandik urrunduta egon ostean, bai fisikoki bai espiritualki, eta umetan elkarren anaiak balira bezala izan ostean... Orain elkartu egiten dira, iraganeko liskar bat konpontzeko, elkarrengandik urrundu zituen liskar hura. Eta behartuta daude beraien mamuei aurre egitera, azkenekoz.

Sandor Márai egilearen hitzetan: «Bitxia da, baina hungarieraz, bi hitz hauek, ölés (hilketa) eta ölelés (musu), elkarren antz handia daukate eta erro berekoak dira...»

*Presentada por Alta Realitat.*

*Inspirada en la novela El último encuentro, de Sandor Márai.*

*Creada en 2004 y retomada en 2014, con estreno en el Mercat de les Flors, 2015.*
*Premio Ciutat de Barcelona y Mejor Espectáculo de Danza 2004.*

La adaptación cinematográfica que realizaron en 2011 bajo la dirección de Clara van Gool recibió también numerosos premios, y entre ellos figuran los siguientes: Mejor Cortometraje en la sección Noves Visions del Sitges 2011, el festival internacional de cine fantástico de Catalunya, el de Mejor Corto de Arte en el festival de cine de Girona 2012, así como finalista nominado al premio Mejor Cortometraje en la V edición de los premios Gaudí de la Acadèmia del Cinema Català.

Esta pieza nos muestra el reencuentro de dos viejos amigos después de cuarenta años de distanciamiento tanto físico como espiritual, y después de haber sido como hermanos cuando eran niños... Ahora se encuentran para resolver un conflicto del pasado, un conflicto que les distanció. Y se ven obligados a confrontarse con sus fantasmas por última vez.

Según las palabras del autor, Sandor Márai: «Es extraño, pero en húngaro, estas dos palabras, ölés (matanza) y ölelés (beso), se parecen mucho y tienen la misma raíz...»

## 20:00 h.

Sorkuntza eta interpretazioa
Creación e interpretación:
**Jordi Cortés, Damián Muñoz**

Kolaborazio artistikoa
Colaboración artística:
**María Muñoz (Cía. Mal Pelo)**

Musika Música:
**Collage**

Argiztapena Iluminación:
**Javi Ulla**

Eremu eszenikoa
Espacio escénico:
**Jordi Cortés, Damián Muñoz, María de Frutos**

Ahotsa Voz:
**Silvia Pérez Cruz**

Jantziak Vestuario:
**Antonio Belart**

Modista:
**Goretti Puente**

Fotografia Fotografía:
**Josep Aznar**

Community Manager:
**Marc Mittenhoff**

Komunikazioa eta prentsa
Comunicación y Prensa:
**Marc Gall - Comedia**

Banaketa Distribución:
**Jéssica F. Maya - iCultur**

Ekoizpena Producción:
**Alta Realitat, Damián Muñoz**

Ekoizpen exekutiboa
Producción ejecutiva:
**Raül Perales**

Koprodukzioa Coproducción:
**Endansa**

Kolaborazioak Colaboraciones:
**L'animal a l´esquena, Fabrik Tanztage Potsdam, L'estruch - Fàbrica de creació de les arts en viu de Sabadell**

Honako hauen babesarekin
Con el apoyo de:
**L´estruch, Ajuntament de Sabadell, INAEM - Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, Kultura Saila - Gobierno Vasco, Institut Ramón Llull, Cultura - Generalitat de Catalunya**

Eskerronak Agradecimientos:
**Marta García (Espai de Dansa de la Generalitat de Catalunya), Fani Benages, Dani Planas, Salut Tarruell, Laura Torrecilla (Agencia de Cooperación Internacional), Sandra Costa, Clara van Gool, Ángel Sala, Cane, Directores de centros culturales y embajadas Españolas en el extranjero, Directores artísticos de teatros y festivales de diversos países.**



**21-22 azaroa** noviembre

**LA FUNDICIÓN**



# Juan Carlos Lérida

**Barcelona**

## BAILOGRAFÍA

Ideia eta zuzendaritza
Idea y dirección:
**Juan Carlos Lérida**

Interpretea Intérprete:
**Juan Carlos Lérida**

Musika Música:
**Collage**

Argiztapena Iluminación:
**LaSuite**

Eszenografia Escenografía:
**LaSuite**

Jantziak Vestuario:
**JC**

Ekoizpena Producción:
**Danilo Pioli (DanceBox.es), Asociación Flamenco Empírico**

Fotografia Fotografía:
**Paco Villalta**

*«Gogorapen batzuk elkarren lagunak bezalakoak dira, badakite berradiskidetzen.»*

*Marcel Proust*

«Juan Carlos Léridak proposatzen duen pieza bere ibilbidetik abiaturiko atzera begirako ikuspegi batetik konposatu da, denboraren iragateak berak eta Léridaren eboluzioak egindako berrikuste natural batekin, dantzari, koreografo eta pedagogo legez. Dantzaren grafia. Gorputz baten trazu koreografikoa. Edo gorputz batean egindakoa. Denboraltasun biren arteko topalekua: orainarena eta absentziarena. Memoriaren aztarna, orbain edo bidezidorra.»

Francisco L. R. Parra

*«Ciertos recuerdos son como amigos comunes, saben hacer reconciliaciones»*

*Marcel Proust*

«Juan Carlos Lérida propone una pieza compuesta a partir de una retrospectiva a su trayectoria, con una revisión natural de la mano del propio paso del tiempo y de su experiencia y evolución como bailarín, coreógrafo y pedagogo. Grafía del baile. Trazo coreográfico de un cuerpo. O en el cuerpo. Un lugar de encuentro entre dos temporalidades: la del presente y la de la ausencia. Huella de la memoria, cicatriz o sendero»

Francisco L. R. Parra

20:00 h. (21) / 19:00 h. (22)



**5 abendua** diciembre

**SALA BBK**

# Compañía Belén Maya

**Sevilla**

## YA! (ENSAYOS)

Dantza eta koreografia
Baile y coreografía:
Belén Maya

*Cante*-a - musika zuzenean
Cante - música en directo:
Niño de Elche

Gitarra - musika zuzenean
Guitarra - música en directo:
Raúl Cantizano

Aholkularitza eszenikoa
Asesoramiento escénico:
Marilia Samper

Argiztapena Iluminación:
Manuel Colchero

Prentsa Prensa:
Manuel Moraga

Banaketa Distribución:
Pablo Leira

Ekoizpen-laguntzailea
Ayudantía de producción:
José Manuel Navarro

Ekoizpen-zuzendaria
Dirección de producción:
Guiomar Fernández Troncoso

**3, 4, 6 abendua** diciembre
**EUSKALDUNA JAUREGIA**
**TALLER Flamenco**
**Flamenko TAILERRA**

**dantzaBiz** - Bizkaiko Dantza Etxea



**20:00 h.** Con la colaboración de SALA BBK -rekin lankidetzan

**Belén Maya eta Niño de Elcheren arteko enkontru bat**

Batzuetan, obra berri bati ekiterakoan, asmatzearen betebeharrak lurperatzen gaitu. Betebehar horrek, kondena bihurtuta, okerbidearen plazera lapurtzen digu, horrela eragotziz leku ezezagunetan agertzen hastea edota espazio eta denbora arriskutsuak zapaltzea.

Belén Maya eta Niño de Elcheren arteko lehen hitzordu eszeniko honetan –bidaia askotan bidaide izandako Raúl Cantizanorekin batera– nahiago izan dute obligazio hori bertan behera uztea.

*Ya!* izeneko lanak hiru artistek elkarrekin esploratu dituzten bideak eta bazterrak erakusten dizkigu. Hirurek elkarri ematen dizkiote flamenkoa eta bere eszenaratzea ulertzeko dauzkaten forma diferenteak, besteari norberak eramatea utziz eta norberaren lurraldeari ostera ere erakarriz, ezohiko enkontru honetatik ernaldutako lengoaia berria jokatu daitekeen leku komun batera ailegatu arte.

Ikuskizunak nahierara jolasten da eta manipulatzen du Niño de Elchek burututako *cantología*, behin eta berriro errepikatzen diren *cante*-aren hainbat forma eta palo trebeki zeharkatuz, dantza, *cante*-a eta gitarra pausoz pauso sofistikatzen doazela, kizkurra kizkurtuz, erabateko malabarismo eszenikoko egintza batean, hasierako material guztia urratu arte.

*Ya!* oraina da, orainaren berehalakotasuna eta lan honi ekiteko duten izpiritua: artifiziorik gabe, aitzakiarik gabe, beraien nahi bakarra beren burua ematea dela, eta baita ere beren egiten jakitea, energiak eta eskarmentuak gehitzea, artista geldiezinen askatasun basatiarekin eta eromen miresgarriarekin, bilaketa etengabearen beharrizana dutenena, lurralde ezagunetako erosotasunetik urruntzeko beharra sentitzen dutenena.

*Ya!* ikuskizunean flamenko hutsa dago, teatraltasuna, umorea eta bikaintasuna. Baina batez ere, ondo pasatzeko eta publikoa dibertitzeko gogoa dago. Hiru interpreteen arteko erabateko konexioak, beraien artean eta eszenarekin dagoen intimitateak, ikusleekiko konplizitate-harremana sortuko du, eta publikoak, entsegu batean balego bezala, euren saioetan parte hartu eta beraiekin gozatuko du, beren asmatze eta hutsekin eta beren karisma ahalmentsuarekin.

**Un encuentro entre Belén Maya y Niño de Elche**

A veces, al encarar una nueva obra, nos sepulta la obligación de acertar. Esta obligación se convierte en condena que nos roba el placer del extravío, que nos priva de asomarnos a lugares inéditos, que nos impide pisar espacios y tiempos de riesgo.

En esta primera cita escénica entre Belén Maya y Niño de Elche, acompañado de su ya cómplice de múltiples viajes Raúl Cantizano, han preferido abolir esa obligación.

*Ya!* nos muestra los caminos y recovecos que los tres artistas han explorado en conjunto, entregándose mutuamente sus diferentes formas de entender el flamenco y su escenificación, dejándose llevar por el otro y arrastrándolo a su vez a su territorio, hasta llegar a un lugar común donde conjugar el nuevo lenguaje germinado de este insólito encuentro.

El espectáculo juega y manipula a su antojo una *cantología* que ejecuta el Niño de Elche, cruzando hábilmente por diversos palos y formas del cante, y que vemos repetirse una y otra vez, donde baile, cante y guitarra se van sofisticando a cada paso, rizando el rizo, en un acto de absoluto malabarismo escénico, hasta transgredir del todo el material de inicio.

*Ya!* es el ahora, la inmediatez del presente y el espíritu con el que se enfrentan a este trabajo: sin artificios, sin excusas, y con la única pretensión de entregarse y entregar su bien hacer, de sumar energías y experiencias, con la libertad salvaje y la maravillosa locura de los artistas inquietos que se sienten en la necesidad de la constante búsqueda y de alejarse de la comodidad de los terrenos ya conocidos.

En *Ya!* hay flamenco en estado puro, hay teatralidad, hay humor y hay excelencia. Pero sobre todo, hay ganas de divertirse y de divertir al público. La absoluta conexión entre los tres intérpretes, la intimidad que existe entre ellos y con la escena, creará también esa relación de complicidad con el público que, como quien asistiera a un ensayo, participará y disfrutará de sus intentos, de sus aciertos y desaciertos y de su poderoso carisma.

# Lisbeth Gruwez - Voetvolk

## Bélgica

## IT´S GOING TO GET WORSE AND WORSE AND WORSE, MY FRIEND

Mintzoa arma eraginkor bat izan daiteke. Mintzaldiek liluratu egin dituzte jende-oldeak mendeetan zehar eta ekintzara eraman dituzte onerako zein txarrerako. Iraultzak sortu dituzte eta gerrak elikatu. Hitzaren indarra. Baina mintzaldi batek ez bakarrik liluratzen ditu entzuleak: hitz egiten duena bera ere trantze-egoerara eroaten du sarri. Hitz egitea, hitzen korrontean, egoera obsesiboan eta estasian galtzen den unea da. Mintzoaren eraginkortasuna sarri hitzaldiaren trantze-egoera horren mende egon ohi da.

“It’s going to get worse and worse and worse, my friend” dantzaldian Lisbeth Gruwez-ek trantze-egoera hori, hitzezko estasi hori dantzatzen du. Prozesurako, Jimmy Swaggart tele-ebanjelari ultra kontserbadore amerikarraren mintzaldien atalak erabili ditu: hasieran hizkera adiskidetsua da, baketsua, baina mintzaldia aurrera doan heinean konbentzitzeko gogo hertsagarria agertuz eta gero eta amorru handiagoan eta etsituagoan bihurtuz doa; eta azkenean bere izaera sakonagoa uzten du agerian: biolentzia.

*Gizonezkoaren ahots baten eta interprete emakume baten arteko botere-harremanak (nork manipulatzen du bestea?), biren urrats izugarri eta erronkari bilakatzen dira (...) 2012a hasi baino ez da egin, baina Lisbeth Gruwez-ek hasieratik bukaeraraino harrapatzen duen pieza honekin guztiz altu uzten du maila beste behin.*

*By Sarah Vankersschaever, DE STANDAARD (Brussels), 19 January 2012*

Un discurso puede ser una arma muy poderosa. A través de los siglos los discursos han entusiasmado a las masas y las han llevado a la acción, para bien o para mal. Han desencadenado revoluciones y alimentado guerras. El poder de la palabra. Pero un discurso no solamente entusiasma a los oyentes: muy a menudo transporta al que habla a un estado de trance. Es el momento en que se pierde en la corriente de las palabras, en un estado obsesivo y de éxtasis al hablar. El poder del discurso muchas veces ha dependido de este estado de trance del hablante.

En “It’s going to get worse and worse and worse, my friend” Lisbeth Gruwez baila ese estado de trance, de éxtasis verbal. Para el proceso ha utilizado fragmentos de discursos del tele-evangelista ultraconservador americano Jimmy Swaggart: al principio el lenguaje es amistoso, pacífico, pero a medida que transcurre el discurso va aflorando su compulsivo deseo de convencer, se va transformando en creciente y desesperada crispación que finalmente deja a la vista su naturaleza más profunda: la violencia.

*Las relaciones de poder entre una voz masculina y una intérprete femenina (quién manipula a quien ?) se convierten en un fantástico y desafiante paso a dos (...) Lisbeth Gruwez deja el nivel muy alto con esta pieza que, una vez más, atrapa desde el principio al final.*

*By Sarah Vankersschaever, DE STANDAARD (Brussels), 19 January 2012*

**19:00 h.**

Con la colaboración de GUGGENHEIM BILBAO -rekin lankidetzan



Ideia, koreografía & dantza
Idea, coreografía & danza:
**Lisbeth Gruwez**

Konposaketa, soinuaren diseinua & asistentzia
Composición, diseño de sonido & asistencia:
**Maarten Van Cauwenberghe**

Jantziak Vestuario:
**Veronique Branquinho**

Arte-aholkularitza
Asesoría artística:
**Bart Meuleman**

Argien diseinua
Diseño de iluminación:
**Harry Cole**

Argiak Iluminación:
**Caroline Mathieu**

Eskerronak Agradecimientos:
**Tom de Weerdt**

Produkzioa Producción:
**Voetvolk vzw**

Koprodukzioa Coproducción:
**Grand Theater Groningen, Troubleyn/Jan Fabre and Theater Im Pumpenhaus**

Zabalkundea Difusión:
**Key Performance**

Laguntza Con el apoyo de:
**Provincie West-Vlaanderen & Vlaamse Gemeenschap**

**Voetvolk / Lisbeth Gruwez - Maarten Van Cauwenberghe**

**13 abendua** diciembre

**PALACIO EUSKALDUNA**

# Cía. Sharon Fridman

**Madrid**

## FREE FALL-CAÍDA LIBRE



**10, 11, 12 abendua** diciembre

**EUSKALDUNA JAUREGIA**

**TALLER de Danza Contemporánea**

**Danza garaikidea TAILERRA**

**dantzaBiz** - Bizkaiko Dantza Etxea

## 20:00 h.



Zuzendaritza artistikoa Dirección artística:
**Sharon Fridman**

Koreografia Coreografía:
**Sharon Fridman con la colaboración de los intérpretes**

Koreografia-laguntzaileak Asistentes de coreografía:
**Arthur Bernard-Bazin y Carlos Fernández**

Interpreteak Intérpretes:
**Pau Colera, Jonathan Foussadier, Maite Larrañeta, Alejandro Moya, Melania Olcina, Léonore Zurflüh**

Dramaturgia Dramaturgia:
**Antonio Ramírez-Stabivo**

Jatorrizko musika Música original:
**Luis Miguel Cobo**

Eszenografia Escenografía:
**Oficina 4play arquitectura**

Argiztapenaren diseinua Diseño iluminación:
**Sergio García Domínguez**

Jantzien diseinua Diseño de vestuario:
**Inbal Ben Zaken**

Ikus-entzunezkoak Audiovisuales:
**Damián Varela, Eva Viera**

Biraren planifikazioa eta komunikazioa Planificación de gira y comunicación:
**Laura Gil Diez**

Kudeaketa Gestión:
**Fani Benages Arts Escèniques**

Koprodukzioa Coproducción:
**Mercat de les Flors, Theater im Pfalzbau Ludwigshafen**

Laguntzak Apoyos:
**INAEM, Comunidad de Madrid, Centro Danza Canal, Centro Comarcal de Humanidades Cardenal Gonzaga, Coreógrafos en Comunidad**

Gure biziraupena auzi bertikala da: erori osteko altxatzea egunero birsortzen den ziklo infinitua da. Denok gara asimetria dinamiko horren partaideak, baina bakoitzak bakana eta besterenezina balitz bezala sentitzen du. Taldeetan murgilduta gabiltza beti, taldean saiatzen gara zentzua eta askatasuna aurkitzen, ahal dela jauzi librea (Caída libre) ea posiblea ote den konprobatzen.

Bizirauteko elkartzearen beharra giza izaeran dago, biziberritzeko eta ordena berria eraikitzeko. Jatorrizko indar bat dago, mugimendu eta elkarketa bilakatzen den energia, abiadura bat... baliteke geure ardura izatea bertan zalantzarik gabe sartzea.
PARTE-HARTZE PIEZA (tailerreko kideen laguntzarekin)

Nuestra supervivencia es una cuestión vertical: levantarse tras caerse constituye un ciclo infinito que se reproduce cada día. Todos somos partícipes de esta asimétrica dinámica, pero cada uno la siente única e intransferible. Siempre inmersos en grupos, en el grupo procuramos encontrar el sentido, la libertad, comprobando si es posible la caída libre.

Se encuentra en la naturaleza humana la necesidad de unión para sobrevivir, para reponerse y construir un nuevo orden. Existe una fuerza primigenia, una energía que deviene movimiento y unión, una velocidad... entrar en ella sin vacilación puede que sea nuestra responsabilidad.
PIEZA de PARTICIPACION (con la presencia de los integrantes del TALLER)

# CINE-VIDEO ZINEMA-BIDEOA

Con la colaboración de

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

-rekin lankidetzan

## 19 azaroa noviembre

## BIZKAIA ARETOA 18:00 h.

### BEGIRADAREN KOREOGRAFIAK

Minimalismoa, zinea eta dantza, Anne Teresa De Keersmaeker-en inguruan.

*Fase* filmaren proiekzioak (Thierry De Mey, 2002)

Proiektu modernoa konplexutasunaren, produkzioaren, metaketaren eta aurrerapenaren ideien gainean eraiki zen. Beraz, –Bigarren Mundu Gerraren ostean eta irudi-multzo haren gainbeheratik abiatuta– ez da harritzekoa hainbat mugimendu artistiko formaren gehiegikerien azpian funtsezkoaren bila ibili izana, gutxieneko adierazpen bila, eszena artistikoa bere zimenduetatik birpentsatzeko.
Minimalismoa mugimendu horren parte da, eta praktika nahiz konbentzio artistikoen desmuntatzeari saiatzen da ekiten –haien artean dantza dagoela–, material, lengoaia eta baliabideen ekonomia zorrotzaren bidetik. *Fase* filmean Anne Teresa De Keersmaker-ek sortutako lau atal koreografiko filmatu ditu Thierry De Mey-k, irudien esentzia formal eta estetikoa gorputzaren adierazkortasun gorenera eramanez.

**Aurkezpena eta komunikazioa**: Eneko Lorente - UPV/EHUko Komunikazio, Ikus-entzunezko eta Publizitate saila.

### COREOGRAFÍAS DE LA MIRADA

Minimalismo, cine y danza, a propósito de Anne Teresa De Keersmaeker

Proyecciones de *Fase* (Thierry De Mey, 2002)

El proyecto moderno se construyó sobre las ideas de complejidad, producción, acumulación y progreso. No es por ello extraño que, tras la Segunda Guerra Mundial y a raíz del deterioro de ese imaginario, diversos movimientos artísticos trataran de buscar bajo el exceso de forma lo esencial, la mínima expresión, con el fin de repensar desde sus cimientos la escena artística.
El minimalismo forma parte de este movimiento que trata de abordar, mediante una estricta economía de materiales, lenguajes y medios, un desmontaje de las convenciones y prácticas artísticas, entre ellas la danza. Thierry De Mey filma en *Fase* cuatro movimientos coreografiados por Anne Teresa De Keersmaker, conduciendo la esencia formal y estética de las imágenes hacia la máxima expresividad del cuerpo en movimiento.

**Presentación y comunicación**: Eneko Lorente - Dpto. Comunicación, Audiovisuales y Publicidad UPV/EHU

## 10 abendua diciembre

## BIZKAIA ARETOA 18:00 h.

### CHOREOSCOPE

Bartzelonako Dantza-zine Nazioarte Jaialdiaren hartzaileak dantza gustuko dutenak eta zazpigarren artearen zaleak dira: kontua da arte ororekiko loturak eta baita ere zine eta bereziki dantzarekiko loturak indartzea.
Dantza-zinea vs. bideo-dantza. Ba al dago alderik bi termino hauen artean? Esangura berbera daukate? Ba ote dago bien arteko harremanik? Zer dela eta zentratzen da Choreoscope dantza-zinean?
Eta dantzatik haratago, mugitzen den gorputza dago, hitzetatik kanpoko lengoaia. Richard James Allenek eta Karen Pearlmanek *screendance* kontzeptuaren definizio zabalago bat proposatzen dute: pantailarako egina den eta pantailan ematekoa den dantza, *Stories told by the Body* alegia.

**Aurkezpena eta komunikazioa:** Loránd János, Choreoscope jaialdiaren zuzendaria.

### CHOREOSCOPE

Festival Internacional de Cine de Danza de Barcelona, cuyos objetivos van dirigidos no sólo a los amantes de la danza sino también a los del séptimo arte: impulsar el vínculo con el arte en general y con el cine y la danza en particular.
Cine de danza vs. video-danza ¿Hay una diferencia entre estos dos términos? ¿Significan lo mismo? ¿Existe una relación entre ellos? ¿Por qué Choreoscope se centra en el cine de danza?
Y más allá de la danza, el cuerpo en movimiento, el lenguaje no verbal. Richard James Allen y Karen Pearlman proponen una definición más amplia del concepto *screendance*, la danza en/para la pantalla: *Stories told by the Body*.

**Presentación y comunicación:** Loránd János, director del festival Choreoscope.

# DANTZA TAILERRAK
# TALLERES de DANZA

Con la colaboración y organización de
Lankidetza eta antolakuntza
**dantzaBiz** - Bizkaiko Dantza Etxea






# AURREKO EDIZIOAK
## EDICIONES ANTERIORES

## 2000







Ballet de Biarritz
Compañía Gelabert-Azzopardi
Nuevo Ballet Español
Lanònima Imperial
Compañía Metros / Ramón Oller

## 2001







Última Vez / Wim Vandekeybus (Bélgica)
L´Esquisse / CNDC (Francia)
Damián Muñoz Danza
María Pagés
Hans Hof Ensemble (Holanda)

## 2002







Rafael Amargo
Roseland Musical
Mal Pelo
Groupe DACM (Francia)
Galili Dance (Holanda)

## 2003






Farruquito
Compañía Danzahoy (Venezuela)
Alias Compagne (Suiza)
Compañía Nacional de Danza

## 2004






Random Dance (Reino Unido)
Cía. Enclave / Roberto Oliván (Bélgica)
Rafael y Adela Campallo
Compañía Nacional de Danza

## 2005






Compañía Käfig (Francia)
Leine & Roebana (Holanda)
Ballets c. De la b. (Bélgica)
Cía. Pàl Frènak (Hungría-Francia)

## 2006







Retouramont (Francia)
Linga (Suiza)
Daniel Léveillé (Canadá)
BJM_Danse (Canadá)
Flak-José Navas (Canadá)

## 2007







Compañía Nacional de Danza
Zoo (Bruselas)
Nats Nus (Barcelona)
Sol Picó - Israel Galván
(Barcelona-Sevilla)
Coreógrafas Vascas

## 2008








Bonachela Dance Company (Londres)

Diversions / National Company of Wales (Cardiff)

Hofesh Shechter (Londres)

La Ribot (Madrid-Ginebra)

Henri Oguike Dance Company (Londres)

Logela Multimedia & Circle of Trust

## 2009








Eva Yerbabuena / Ballet Flamenco

Ballet de Lorraine / Centro Coreógrafico Nacional (Nancy)

Sra. Polaroiska en sillón de taller

Lucia Lacarra e invitados (Munich)

Dans.kias - Saskia Hölbling (Viena)

Vascos desde Frankfurt / Jone San Martin, Amancio Gonzalez, Inma Rubio (Frankfurt)

## 2010







Mal Pelo

German Jauregui (Bilbao-Bruselas)

Käfig (Lyon-Río de Janeiro)

Maria Donata D'urso (París)

Kukai Dantza Konpainia

## 2011








Cie. Philippe Saire (Ginebra)

Israel Galván

Les Slovaks Dance Collective (Eslovaquia-Bélgica)

Héla Fattoumi & Éric Lamoureux (Francia)

Amalia Fernandez

Gelabert Azzopardi Companya De Dansa

## 2012









El Laboratoire de Recherche Chorégraphique sans frontières del Malandain Ballet Biarritz

Abou Lagraa y Le Ballet National Algérien (Francia-Argelia)

Rocío Molina (Málaga)

Mizel Théret (Biarritz)

Compagnie Dernière minute / Pierre Rigal (Touluse)

Tove Shalin & Dag Andersson (Estocolmo)

Sonia Gómez (Barcelona)

## 2013









Dantzaz Konpainia (Donostia)

Perfomance de Olivier Dubois (París)

Aracaladanza (Madrid)

CND
Compañía Nacional de Danza

Laveronal (Barcelona)

Aída Gómez (Madrid)

Belén Maya (Sevilla)

## 2014









Lasala (Euskadi)

Asmed Balleto di Sardegna (Cerdeña)

Rocío Molina (Sevilla)

Societat Doctor Alonso & Moaré Danza (Catalunya - Euskadi)

Compañía Daniel Abreu (Madrid)

Carolyn Carlson (Paris)

Iratxe Ansa (Euskadi)

ORGANIZA **ANTOLATZAILEA**

La FuNdicIOn Francesc macià 1-3, 48014 bilbao
tel 944753327 / www.lafundicion.org

**www.dantzaldia.org**

PATROCINA **BABESLEA**

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

SUBVENCIONAN **DIRULAGUNTZAILEAK**

GOBIERNO DE ESPAÑA — MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE — inaem INSTITUTO NACIONAL DE LAS ARTES ESCÉNICAS Y DE LA MÚSICA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO
KULTURA ETA EUSKARA SAILA
AREA DE CULTURA Y EUSKERA

COLABORAN **KOLABORATZAILEAK**

Az Azkuna Zentroa AlhóndigaBilbao — rekalde — BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia — GUGGENHEIM BILBAO

bbk — SALA bbk — Wallonie - Bruxelles International.be — eman ta zabal zazu Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**dantzaBiz** - Bizkaiko Dantza Etxea — CHOREOSCOPE INTERNATIONAL DANCE FILM FESTIVAL BARCELONA — TARIMA trm Soluciones técnicas creativas